

## **Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda**

### **BISITAK ETA IBILALDIAK**

#### **Pasaporteak ;Museatu! eta bidaiatu**

##### **Museoak eta bildumak**

**2018/04/20 - 2018/10/20**

Bidaia bat prestatzea inoiz ez da hain erraza izan. Pasaporteak hiri eta herri berezietara txango motzak planifikatzea ahalbidetuko dizu eta arte garaikide, arte eder, arkeologia, etnografia eta pertsonaia bereziei buruzko museoetan esperientzia paregabeak bizitzeko aukera izango duzu. Anitzak eta kalitate onekoak diren bildumak eta testigantzak agertzen dituzten museo xarmangarriak. Eta hori guztia, Nafarroatik atera gabe.

Taldean edo familiarekin, bikotearekin edo bakarrik, hamahiru museo eta bilduma hauek zain dituzu haien bilduma eta jardueraz zurekin gozatzeko. Gainera, hiru baino gehiago bisitatzen badituzu, sariak lor ditzakezu.

Pasaporteak pertsonala eta/ edo familiarra da. Doakoa da eta hamahiru zentroetan eskuratu daitezke sarreran. Erakunde bakoitzaren zigilua bisita egindakoa eskuratuko da.

#### **Klaustroko lanak bisitatzea**

**Igandea / 10:00, 11:00, 12:00etan**

##### **Iruñeko katedrala**

Lanean ari dira bisita egiten den bitartean, eta, horregatik, 15 pertsona gehienez hartuko ditu txanda bakoitzak. 14 urtetik gorakoak izan beharko dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan, obra-aldamio batera igo beharko baitute. Oinetako erosoak eramatea gomendatzen da, takoirik gabe betiere.

#### **Bisita gidatua "Danok taldea. 1966-1967. Modernitate osatugabea" erakusketara.**

##### **Nafarroako Museoa**

**Igandea / 12:30ean.**

Angel Macías eta Josune Ilundainen eskutik.

Euskaraz

### **ERAKUSKETAK**

#### **Gamazadaren 125. urteurrena**

##### **Nafarroako Errege Artxibo Nagusia.**

**2018/04/02 - 2018/05/31**

La Gamazada izenez ezagututako gertakari historikoen hasieraren 125. mendeurrenaren haritik, haiei buruzko dokumentuen gaineko erakusketa, formatu txikikoa, antolatuko du Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak, hilean behingo erakusketa-programaren barruan. "Gamazadaren 125. urteurrena" apiril eta maiatzean zehar egongo da ikusgai, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren egoitzan, 09:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, asteleheneetik ostiralera, eta 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, asteburu eta jaiegunetan.

#### **Makotu**

## **Jorge Oteiza Fundazio Museoa**

### **Erakusketa. 2018ko martxoak 22 – ekainak 3**

Laguntzaileak: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Museo Sarea eta Eguesibarko Udala  
Asier Mendizabal (Ordizia, 1973) artistak, azken urteotan, Jorge Oteizaren legaturako eta haren eskultura-proiektuan sinbolikoa eraikitzeko modurako hurbilketa kritikoa proposatzen duen obra multzoa egin du. Horren bitartez zalantzan jartzen ditu modernitatearen amaieran eskultorikoa irudikatzeke mekanismoak.

### **“Danok Taldea. 1966-1967”**

#### **Nafarroako Museoa**

**2018/03/10 - 2018/05/27**

Nafarroako Museoa “Danok Taldea. 1966-1967: Modernitate osatugabea” erakusketa eskainiko du, Nafarroako garai hartako arte-munduko 27 artistaren 40 lanez osatua. Danok taldearen bat izango ziren Nafarroako artisten lanek osatzen dute erakusketa hein handi batean: José Ulibarrena, Isabel Baquedano, Julio Martín Caro, José M.<sup>a</sup> Ascunce, Gloria Ferrer, José Antonio Eslava, Xabier Morrás, Jesús Lasterra, César Muñoz Sola, Salvador Beunza, Juan Miguel Echeverría, Pedro Osés (zeinen obra bat erakusten den, Juan José Aquerretarekin elkarlanean egin), Eugenio Menaya, Narciso Rota, Miguel Echauri, Mariano Sinués eta Pedro Manterola.

### **“Ikusgai egiten duen gaua”**

#### **Huarte Zentroa**

**2018/03/24 - 2018/04/29**

Rachel Labastie y Nicolás Delpratek Egulbatin garatutako egoitzaren amaierako erakusketa. Egoitza hau Euskadi, Akitania, Nafarroa euroeskualdearen baitan sortutako mugazgaindiko elkarlanaren fruitua izan da.

### **“UPNA en abierto - NUP ZABALIK”**

#### **Nafarroako liburutegia**

**2018/04/18 - 2018/05/31**

Solasaldi-bisita gidatuaren bitartez erakusketa aretoan bertan.

Erakustaldiaren ordutegia:

10:00etatik 14:30etara eta 16:30etatik 20:30etara

(Larunbatean 13:00ak arte)

## **HAURRENTZAKO AISIA**

### **Ongi etorri ipuinetara: Kamishibai**

#### **Nafarroako Liburutegia. Haurren liburutegia**

**Asteazkena / 18:00etan.**

Ipuin-kontalaria. Boz gorako irakurraldia

Sarrera: librea, aretoa bete arte.

Boluntarioekin egiten da jarduera.

Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez irakurriko dira ipuinak.

## **KONTZERTUAK**

### **La Chulapona**

### **Fernando Remacha auditorioa**

**Osteguna / 19:35ean**

Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionaleko Abesbatzak eta Kantu Gelak interpretatuko dute zarzuela.

Entsegu orokorra, entzuleak bertan daudela

Sarrera doakoa da, gonbidapen-txartela aldeztatik lortuta Apirilaren 25eko 10:00ak

baino lehen jaso ahalko dira, Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionaleko Atezaintzan.

Zarzuela hiru ekitalditan

Musika: Federico Moreno Torroba

Liburua: Federico Romero eta Guillermo Fernández-Shaw

### **Nafarroako Orkestra Sinfonikoa**

**Baluartea (Areta Nagusia)**

**Osteguna / 20.00etan**

XII. Abonu Kontzertua

Antolatzailea: Baluarte Fundazioa

Zuzendaria: Antoni Wit

## **SOLASALDIAK ETA HITZALDIAK**

### **Liburuaren eguna**

**Nafarroako Liburutegia. 1. solairuko aretoa**

**“On Kixote” liburuaren irakurketa publikoa**

**Astelehena / 10:00etan.**

Sarrera librekoa, aretoa bete arte. Prezioa: doakoa

Ordutegia: 10:00 – 18:30 (etenaldia: 14:00 – 16:00)

Erakunde antolatzailea: Nafar Ateneoa

### **Ipuin-kontaketa musikaduna**

**Nafarroako Liburutegia. Haurren liburutegia**

**Astelehena / 17:30ean.**

Liburuaren Eguna

Ipuin-kontalaria. Boz gorako irakurraldia

Sarrera: librekoa, aretoa bete arte.

Ipuin-kontalaria, musikak lagunduta

### **Hitzaldia eta kontzertu ibiltaria**

**Nafarroako Liburutegia. 1. solairuko aretoa**

**Astelehena / 18:00etan.**

Liburuaren Eguna

Hizlariak: Paula Verdugo eta Laura Legido

Hainbat musikagile nafarrei buruzko hitzaldia eta beren lan batzuk entzuteko kontzertua, ibiltaria, liburutegiko hainbat ataletan.

Sarrera librekoa, aretoa bete arte. Prezioa: doakoa

Erakunde antolatzailea: Biblioteca de Navarra/Nafarroako Liburutegia

Erakunde laguntzailea: Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa

### **Bidaiariak. Emakumeak on the road**

**Nafarroako Liburutegia. 1. solairuko aretoa**

**Asteartea / 19:00etan.**

Hizlaria: Pilar Rubio Remiro

Izenburua: "La rebelión de Penélope: mujeres que viajan, mujeres que cuentan"

Sarrera librea, aretoa bete arte. Prezioa: doakoa

## **TAILERRAK**

### **Zeharkako estetikak | Aisialdiko ekosistemak**

**Huarte Zentroa**

**2018/04/21 - 2018/06/11**

Egoitza artistikorako deialdia, Uharte, Aurrabia eta Burlataren testuinguru sozialean garatzeko proiektu baterako.

### **Kartografia hedatua**

**Huarte Zentroa**

**Ostiralean 17:00etatik, 20:00etara.**

Larunbata, igandea / 11:00etatik, 14:30era

Kartografia hedatua. Hiri [des]itxuratua

Maite Redondo, Mikel Irure

Dokumentatzen denbora bat eman eta Iruñearen lurralde fisikoaren hainbat mapeo egin eta gero, bi abiapuntu ezarri zituzten artistek, monumentu bat eta "historia anonimo" bat. Haien zat, konfrontazio honetan, marruskadurak eta gatazkak sortzen dira, boterearen harrokeria eta "besteen" jazoerak ikusezin bihurtzea, urbanismoan eta espazio publikoan zehaztua. Bi kasuetan, haria, ildo nagusia, heriotza da.

### **Tresna teknologikoak erabiliz proiektu artistikoak egiteko lantegia**

**Huarte Zentroa**

**Ostirala / 15.30etan**

Martxoa eta maiatza artean 8 ostiralean Tresna teknologikoen bidez proiektu artistikoak aratzeko, artista eta ingeniarien arteko elkarlanean eta ikerketan oinarritutako lantegia. Medialab-Pradon garatutako elkarlanerako "Interactivos?" prototipatuan medialab-prado.es/interactivos, oinarritua dago bertako testuingurura eta baliabideetara egokitua baina teknologia eta sorkuntza prozesuen elkarlanerako izaera mantenduz.

### **Ilustrazio laborategia: Pulp fikzioa eta koadernaketa**

**Huarte Zentroa**

**Larunbata / 11.15etan**

Laborategi honetan, fikziozko pulp nobela zaharren gisara egingo ditugu libretak, estalkitarako, garaian azaletarako erabili izan ziren ilustrazioak erabiliz.

### **Think Tank**

**Nafarroako Errege Artxibo Nagusia.**

**Osteguna / 09:00etan**

"Kultura komunikatzea praktikotik" izenburukoa izango da estreinako laborategia, Komunikazioan doktore Andrés García de la Rivaren eskutik.

## ZINEMA

### [Amodiozko lan galduak](#)

#### **Nafarroako Filmoteka**

##### **Astelehena / 20.00etan**

Kenneth Branagh-en zinemarako bertsioa 1939an girotzen da, Cole Porter, Irving Berlin eta George Gershwin-en abestiak erabiliz filma musikal bat bihurtuz.

Shakespeareen hizkuntza irudigarri eta anitza era ezinhobean egokitzen du Branaghek, adaptazio lanetan aditua. Hala, lan originala laburtu eta garaiko berri eta musika eszenak gehitzen ditu, film oso original eta interesgarria lortuz.

Zuzendaritza eta gidioia: Kenneth Branagh

### [Certain Women. Zenbait emakume](#)

#### **Nafarroako Filmoteka**

##### **Asteartea / 20.00etan**

Lau emakumek bere kabuz ipar-ekialde estatubatuarrean zehar aritzea erabakiko dute. Laura (Laura Dern) sexismoari eta bahitu krisi bati aurrea agiten dion abokatua da. Gina (Michelle Williams) familia perfektuarekin amesten duen emazte eta ama da. Beth (Kristen Stewart) abokatutzan ari den ikasle gaztea da, arrantxo bateko langile batekin erlazio bat mantentzen duena (Lily Gladstone). Hain biziak era finean topatuko dira, emakume akastun baina boteretsu batzuen istorioa kontatuz, haien lekua aurkitzeko saiakeran.

Zuzendaritza eta gidioia: Kelly Reichardt

### [IKUSPUNTU JAIALDIARI BEGIRA: Young and Beautiful / Truly Yours](#)

#### **Nafarroako Filmoteka**

##### **Asteazkena / 20.00etan**

Young and Beautiful (Espainia, 2018)

Zuzendaritza, argazkigintza, soinua zuzenean: Marina Lameiro.

Hezi nahi ez izana leporatu zaion belaunaldi baten deskribapen konplexuagoa dugu hau, aurrera egiteak ametsak alde batera uztea suposatzen duena.

Film onenari ikusleek emandako Saio Bereiza, 2018ko Ikuspuntu Zinemaldi Internazionala.

Yours Truly (Espainia, Britainia Handia, Chile, 2018)

Zuzendaritza, argazkigintza, muntaia: Christopher Murray, Charlotte Hoskins, Maddi Barber.

"Yours Truly" (Adeitasunez) 19 eta 20. Mendeetan Manchesterko Museora ailegatu ziren animalia taxidermikoaren istorioa jarraitzen du. Museo zuzendarien arteko eskutitzek, espedizioetan aritutako adituek eta britainiar nobleziak animalia hauen istorioak ezagutaraztera ematen dituzten. Erakusgai hauek garai batean izaki bizidunen bizitza kontrolatu nahi zenaren lekuko eta adierazgarri desorosoak dira.

### [EUROPAR MAILAKO IKUS-ENTZUNEZKO SORKUNTZEN LEHIAKETA](#)

#### **Nafarroako Filmoteka**

##### **Osteguna / 20.00etan**

“CTL 59 segundu” lehiaketaren epaimahaiak hiru sari eskeiniko ditu aukeratutako 30 lanen artean: “CTL 59 segundu” ikus-entzunezko Lan Onenari Saria (diploma eta 1000 euroko saria), Nafarroako Zuzendari Onenari Aipamen Berezia (diploma) eta Esperimentazio Lan Onenari Aipamen Berezia (diploma).

## Epaia

### **Nafarroako Filtoteka**

#### **Ostirala / 20.00etan**

Etixerako bidean Luc eta bere emaztea lapurreta saiakera baten lekuko dira. Luc tartean sartuko da eta lapurrak zentzu Gabe utziko du kolpe batez. Hiru aste beranduago, esnatu eta bere emaztearen heriotzaren berri jasoko du. Luc erruduna aurkituko du, epai prozesuan izandako akats baten ondorioz aske dagoena. Momentu horretatik aurrera mendekua izango da bere pentsamendu bakarra.